**ZIGOITIA**
UDALA - AYUNTAMIENTO

ZIGOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZIGOITIA
ARABA
DATA FECHA - 7 JUN 2024
428

**Nº expediente**: 300/2024

**Procedimiento**: Propuesta de declaración institucional en relación con el proyecto de instalación de planta solar fotovoltaica y su infraestructura de evacuación, denominado "Solaria Zierbena Solar 3" y promovido por la empresa Solaria Eguzki Sorkuntza, S.L.

Javier Gorbeña García (1 de 1)
Alcaldía
Fecha Firma: 06/06/2024
HASH: cb036ca3195015866195a5f6737a28db

## IRAGARKIA

Zigoitiko Udalak, 2024ko maiatzaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran, ondorengo mozioa onartzea erabaki zuen:

### MOZIOA, "SOLARIA ZIERBENA SOLAR 3" IZENEKO EGUZKI-PLANTA FOTOVOLTAIKOA INSTALATZEKO PROIEKTUARI BURUZKOA

Zigoitiko Udalak bere jarrera plazaratu nahi du Solaria enpresak gure lurraldean panel fotovoltaikoak instalatzeko proposatutako proiektuen eta horietan sortuko den energia kudeatzeko proiektatutako ebakuazio-lineen inguruan.

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu Zigoitiko Udalak trantsizio energetikoaren aldeko apustu sendoa egina duela. Izan ere, 2019an Larrialdi Klimatiko Egoera deklaratu genuen udalerrian, eta Klima Aldaketaren aurkako Plana ekarri zuen prozesu parte-hartzaileari ekin genion, hainbat eremutatik gure planetaren degradazioaren aurka borrokatzen lagunduko duten neurriekin.

Urteak daramatzagu neurri horiek ezartzen, gure udal-eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzen eta erregai fosilekiko mendekotasuna murrizten saiatzen, nahiz eta oraindik bide luzea dugun egiteko.

Hala ere, uste dugu Solariak aurkeztutako proiektuak ondorio larriak dakartzala, eta ezin ditugu alde batera utzi. Proiektu hauen bidez sortuko den energia Zierbenara eramango da, eta bertan, enpresak 1800MW-raino ebakuatzeko baimena du. Argi dago, beraz, proiektu horiek gure lurraldean izango dituzten ondorioak ez direla bakarrak izango, eta oraingoz ez ditugu ezagutzen enpresak proiektatzen dituen gainerako lantegien tamaina, kokapena eta kalteak, orain aurkezten direnei gehituta.

Beharrezkoa da orain publiko egin diren proiektuak baimentzeko eskumenak dituzten administrazioek haiekin batera joango direnen dimentsioa eta ezaugarriak ezagutzea,

## ANUNCIO

El Ayuntamiento de Zigoitia, en sesión ordinaria de pleno celebrada el día 20 de mayo de 2024, acordó aprobar la siguiente Moción:

### MOCIÓN EN RELACIÓN AL PROYECTO DE INSTALACIÓN DE PLANTA SOLAR FOTOVOLTAICA DENOMINADO"SOLARIA ZIERBENA SOLAR 3"

El Ayuntamiento de Zigoitia desea hacer pública su postura respecto a los proyectos propuestos por la empresa Solaria para la instalación de paneles fotovoltaicos en nuestro territorio y las líneas de evacuación proyectadas para gestionar la energía que se producirá en los mismos.

En primer lugar, queremos dejar claro que el Ayuntamiento de Zigoitia apuesta firmemente por la transición energética. No en vano en 2019 declaramos al Emergencia Climática en el municipio y abordamos un proceso participativo que dio lugar a un Plan Contra el Cambio Climático con medidas que, desde distintos ámbitos, contribuirán a luchar contra la degradación de nuestro planeta.

Llevamos años implantando dichas medidas, mejorando la eficiencia energética de nuestros edificios municipales y tratando de reducir nuestra dependencia de los combustibles fósiles, aunque aún nos queda mucho camino por recorrer.

Sin embargo, consideramos que el proyecto presentado por Solaria comporta graves consecuencias que no podemos ignorar. La energía que se generará mediante estos proyectos será transportada hasta Zierbena, donde la empresa tiene permiso para evacuar hasta 1800MW. Está claro, por lo tanto, que las afecciones que para nuestro territorio tendrán estos proyectos no serán las únicas y se desconocen de momento el tamaño, la ubicación y los perjuicios que el resto de plantas que proyecta la empresa, sumadas a las que ahora se presentan, pudieran generar.

Es necesario que las administraciones con competencias para autorizar los proyectos que ahora se han hecho públicos conozcan la dimensión y las características de los que les

Cód. Validación: 9WRPFTF6XN6ASXKH953X2MFXH
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 2

hedapen horrek gure ingurumenean eta gure lehen sektorearen etorkizunean izango lukeen eragin globalari buruzko ikuspegi erreala izateko.

Zigoitian, Solaria-Zierbena Solar 3 proiektuan sartzen diren 111 hektareetatik 54 inguru balio estrategiko handiko lur gisa sailkatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren LAPean. Proiektuan bertan **LARRITZAT** jotzen den afekzio bat da, eta ezinbestekoa da lurzoru horien erabilera bermatzea gure lehen sektorerako.

Horrela xedatu da gaur egun izapidetzen ari den HAPOn, autokontsumorako instalazioak eta energia-komunitate publikoak errazteko neurriak sartuz eta Solariak bere proiektuarekin bereganatu nahi dituen balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuak erabat baztertuz.

Solaria-Zierbena Solar 3 proiektua ezartzeak aurrez aurre talka egingo luke gure etorkizuneko hirigintza-antolamenduan aho batez onartutako neurri horien aurka, arlo horretan ditugun udal-eskumenak urratuz.

Horrela, bada, Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du proiektu horien aurka agertzea eta indarrean dagoen legeriaren arabera proiektu horiek ezartzea eragozteko eskura dituen neurri guztiak hartzea. Horretarako, gure talde juridikoek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditu, eta araudiak prozedura horietarako ezartzen dituen baldintza guztiak zorrotz bete daitezela eskatu du.

Era berean, Zigoitiko Udalak konpromisoa hartzen du arlo horretan aholkularitza behar izan dezaketen herritarrekin, administrazio-batzarrekin eta udalerriko elkarteekin lankidetzan aritzeko.

Laburbilduz, Zigoitiko Udalak energia berriztagarrien aldeko apustua berresten du, betiere energia berriztagarrien hedapena ordenatua, soziala eta ingurumenaren aldetik bidezkoa eta iraunkorra bada eta herritarren ongizatea lortzera bideratuta badago. Gure erantzukizuna da guztiontzako etorkizun justu eta iraunkorra babestea eta bermatzea

acompañarán para poder tener una visión real de la afección global que este despliegue tendría en nuestro medioambiente y en el futuro de nuestro sector primario.

En Zigoitia unas 54 hectáreas de las 111 que se incluyen en el proyecto Solaria-Zierbena Solar 3 están clasificadas por el PTS Agroforestal del País Vasco como terrenos de Alto Valor Estratégico. Se trata de una afección que en el propio proyecto se califica como **SEVERA** y es imprescindible garantizar el uso de estos suelos para nuestro sector primario.

Así se ha dispuesto en el PGOU que se encuentra actualmente en trámite, introduciendo medidas para facilitar las instalaciones de autoconsumo, comunidades energéticas públicas y excluyendo totalmente las zonas agroganaderas de alto valor estratégico, que Solaria pretende acaparar con su proyecto.

La implantación del proyecto Solaria-Zierbena Solar 3 chocaría frontalmente contra estas medidas aprobadas por unanimidad en nuestra futura ordenación urbanística, vulnerando nuestras competencias municipales en la materia.

Así pues, el Pleno del Ayuntamiento de Zigoitia ha decidido mostrar su oposición a los citados proyectos y tomar cuantas medidas estén a su alcance para impedir su implantación, de acuerdo con la legalidad vigente, presentando las alegaciones que nuestros equipos jurídicos consideren oportunas y exigiendo el estricto cumplimiento de todas y cada una de las condiciones que la normativa disponga para estos procedimientos.

Asimismo el Ayuntamiento de Zigoitia se compromete a colaborar con la ciudadanía, Juntas Administrativas y asociaciones del municipio que pudieran precisar asesoramiento en este sentido.

En resumen, el Ayuntamiento de Zigoitia reafirma su apuesta por las energías renovables, siempre y cuando su despliegue sea ordenado, social y ambientalmente justo y sostenible y esté encaminado a lograr el bienestar de la ciudadanía. Es nuestra responsabilidad proteger y garantizar un futuro justo y sostenible para todas y todos.

**SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA**
**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

**TABLON DE ANUNCIOS**

**Zigoitiko Udala / Ayuntamiento de Zigoitia**
Calle Bengolarra, 1, Ondategi. 01138 (Araba). Tfno. 945464041. Fax. 945464052. Web: https://www.zigoitia.eus/

Cód. Validación: 9WRPFTF6XN6ASXKH953X2MFXH | Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/ | Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 2